

UDAL ERAKETAREN AKTA
ACTA DE CONSTITUCION DEL AYUNTAMIENTO

ZINEGOTZI HAUTATUAK / CONCEJALES ELECTOS

Talde Politikoa – Grupo Político: EAE/ANV.

D. Pedro Maria Peñagaricano Labaca Jn.
D^a Ainitze Echaniz Iraola And.
D. Joseba Aguirrezabala Ayestaran Jn.
D^a Miren Eider Garmendia Arrieta And.
D. Gorka Ochoa – Aizpurua Aguirrezabalaga Jn.
D^a Alazne Ruiz Luluaga And.
D. Gregorio Zuaznabar Urcola Jn

Talde Politikoa – Grupo Político:
EAJ/PNV.

D. Fidel Azpiroz Arrillaga Jn.
D. Jose Ignacio Otermin Garmendia Jn.

Idazkaria – Secretaria

D^a Nekane Agirresarobe Etxeberria And

Eguna eta ordua – Día y hora

2007ko ekainaren 16ean, ordubatean.
16 de junio de 2007 a las 13 horas.

Udaletxeko Bilkura Aretoan 2007ko ekainaren 16 ean ordubatean lehen deialdian, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195. Artikuluan xedatutakoa betez, eta Udala eratzekeo bilkura egiteko, alboan adierazten diren Zinegotzi hautatuak bildu dira, horiek aurrez beren kredentzialak aurkeztu dituzte, bere nortasuna egiaztatuz eta bateraezintasun arrazoien, iharduereen eta ondare ondasunen aitortpenen aurkezpena bidezkotuz, Udala Batzarraren partaideen Interesen Erregistroan jasotzeko.

En el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial a las 13 horas del día 16 de junio de 2007 en primera convocatoria, en cumplimiento de lo establecido en el artículo 195 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, se reúnen los Concejales electos que al margen se expresan, quienes han presentado previamente sus credenciales, acreditando su personalidad y justificando la presentación de las declaraciones de causas de incompatibilidad, actividades y de bienes patrimoniales a efectos de su inscripción en los Registros de Intereses de los miembros de

Adineko Mahaia Fidel Azpiroz Arrillaga Jn.ak eta Alazne Ruiz Luluaga Andreak osatu dute, adin gehiena eta gutxiena duten Zinegotzi hautatuak izateagatik, hurrenez hurren, Eskualdeko Hauteskunde Batzordetik jasotako ziurtagiriek diotena-ren arabera. Lehendakari gisa Fidel Azpiroz Arrillaga Jn. aritu da adin gehiena duena izateagatik, eta Idazkari lanetan, Udal Batzarrean Behin-behineko Idazkari den Nekane Agirresarobe Etxeberria And.

la Corporación.

Queda formada la Mesa de Edad, integrada por D. Fidel Azpiroz Arrillaga y D^a Alazne Ruiz Luluaga, Concejales electos de mayor y menor edad, respectivamente, según se desprende de las certificaciones recibidas de la Junta Electoral de Zona. Presidiendo D. Fidel Azpiroz Arrillaga por ser el de mayor edad, y actuando de Secretario de la misma, la que lo es de la Corporación, D^a Nekane Agirresarobe Etxeberria.

Lehendakariak jakinarazten du joan den maiatzaren 27an izandako hauteskundeak medio, Tolosako zonako hauteskunde batzordeak bidalitako datuen arabera, emaitzak hauek izan dira:

Hautesle kopurua: 1.404
Boto emaileak: 967
Boto zuriak: 17
Boto baliiodunak: 965
Boto baliogabeak: 2

Hautagai bakoitzak, taldeka:

EAE/ANV: 606 botu
EAJ/PNV: 237 botu
PSOE: 43 botu
PP: 33 botu
Ezker batua/Aralar: 30 botu

Zinegotzi hautatuak bertan direna egiaztatu ondoren, lehendakariak hitza hartu eta esan du mahaiak erabakitakoaren arabera boto gehien dituen kandidaturatik boto gutxien ditueneko ordena jarraituz egin behar dela jabetza hartzea. Beraz, lehenengo EAE/ANVko zinegotzietan deitu zaie:

Seguidamente, comprobado que han comparecido todos los Concejales Electos, interviene la Presidencia para decir que la mesa ha acordado que la toma de posesión debe realizarse siguiendo el orden de la candidatura más votada a la menos votada, por lo que en primer lugar son llamados los

Pedro Mari Peñagarikano labacak hartu du hitza.

Concejales de EAE/ANV:

Toma la palabra el Sr. Peñagaricano Labaca.

Ainitze ECHANIZ IRAOLA, Joseba AGUIRREZABALA AYESTARAN, Miren Eider GARMENDIA ARRIETA, Gorka OCHOA-AIZPURUA AGUIRREZABALA, Alazne RUIZ LULUAGA, Gregorio ZUAZNABAR URCOLA, eta neurean, nik Pedro Mari PEÑAGARICANO LABACAK, egin behar hauetan Legeak agintzen duelako, “por imperativo legal” karguaren jabetza zin egiten dugu.

- EAJ/PNVko zinegotzi hautatuak: Azpiroz Arrillaga jaunak hartu du hitza:

- Concejales Electos de EAJ/PNV: Toma la palabra el Sr. Azpiroz Arrillaga:

José Ignacio OTERMIN GARMENDIA eta neronen izenean, aitortzen dugu karguaz jabetzeko Legeak horrela agintzen duelako Konstituzioa beteko dugula.

Taldeak parte hartzea amaitu ondoren, mahaiak KORPORAZIOA FORMALKI ERATUA DELA DEKLARATU DU.

Finalizada la intervención de los Grupos, la mesa DECLARA FORMALMENTE CONSTITUIDA LA CORPORACION.

Horren ondotik, alkatea hautatzeari ekin zaio eta, horretarako, ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. atalean ezarrita dagoen arautegiarekin adostasunean, alkate izateko ondoko zinegotzi hauek izendatu dira hautagai:

Acto seguido se procede a la elección de Alcalde, a cuyo efecto, de acuerdo con la normativa establecida en el artículo 196 de la citada Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, se proclaman candidatos para la Alcaldía a los Concejales que seguidamente se relacionan.

HAUTAGAIAREN IZENA / TALDE POLITIKOA

HAUTAGAIAREN IZENA / TALDE POLITIKOA

Pedro Maria Peñagaricano Labaca EAE/ANV

Pedro Maria Peñagaricano Labaca. EAE/ANV

Fidel Azpiroz Arrillaga jn. EAJ/PNV.

Fidel Azpiroz Arrillaga EAJ/PNV.

Bertaratutako zinegotziek bozketa

Los concejales asistentes proceden a

sekretua egin dute eta, emandako boto guztien zenbaketa eginda, hau da lortutako emaitza:

HAUTAGAIAREN IZENA / LORTURI-KO BOTOAK.

Pedro M Peñagarikano Labaca Jn 7
Zuriak.... 2

Botazioaren emaitzak ikusita, PEDRO MARIA PEÑAGARICANO LABACA, EAE/ANV Talde politikoaren ordezkaria, IZENDATU DA UDAL HONETAKO ALKATE. Ondoren bilerako Lehendakariak mahaiburuan esertzeko eta karguaz jabetzeko adierazi dio.

Gero PEDRO MARI PEÑAGARICANO LABACA zinegotzi hautatuak Anoetako Udaleko alkate kargua onartu eta karguaz jabetu da, udalbatza osoaren aurrean, indarrean dauden xedapenek ematen dioten prerrogatiba, eskubide eta betebeharrekin, honako hau esanez:

“Egun garrantzitsua da guretzat gaurko hau eta bereziki niretzat, berriz ere, Anoetako Alkatetza hartzeko aukera dudalako. Baina guztia normaltasunean joan beharko lukeen egun honetan sentimendu kontrajarriak ditut, gazi-gozoak esango nuke nik. Gaziak, maiatzaren 27ko hauteskundeetan, denek ez zutelako guk izan genuen aukera izan, jende asko geratu zen aukeratua izateko eskubiderik gabe, bestetik, milaka pertsona inolako susmo edo deliturik ez izan arren zorrozki zelatatuak edo inbestigatuak izan ziren eta gertakari hauek zerbait izatekotan oinarritzko eskubideen urraketa dira eta hori demokrazia ezaren seinale denez, ez genuke salatu gabe utzi nahi. Herriaren borondatea errespetatzea lehenengo araua izan behar duelako demokrazia batean. Gainera, beren buruak zentzuduntzat dituzten zenbaiten ahotik zentzugabekeria latzak entzun eta jasan behar izan ditugu: “ilegalizatua izateak abantaila ematen dio Ezker Abertzaleari” edo “Ilegalizazioak debaldeko propaganda suposatzen du” edo “Agian EAE-ANV rekin pasa egin gara baina, onartu egin dute” edo “nahiko genuke alderdi edo aukera guztiak legalak izatea eta

la votación por papeleta secreta y, efectuando el recuento de los votos emitidos, se obtiene el resultado siguiente:

HAUTAGAIAREN IZENA / LORTURI-KO BOTOAK-VOTOS EMITIDOS.

Pedro M Peñagaricano Labaca Jn. 7
Blancos 2

A la vista del resultado de la votación ES PROCLAMADO ALCALDE DE ESTE AYUNTAMIENTO, D. PEDRO MARIA PEÑAGARIKANO LABACA, representante del Grupo político EAE/ANV, a quien el Sr. Presidente invita a ocupar la Presidencia y tomar posesión del cargo.

A continuación el Concejal Electo D. PEDRO MARIA PEÑAGARIKANO LABACA, acepta el cargo de Alcalde del Ayuntamiento de Anoeta y toma posesión del mismo ante el Ayuntamiento Pleno de la Corporación que le confiere esta posesión, con todas las prerrogativas, derechos y obligaciones que le atribuyen las disposiciones vigentes, manifestando lo siguiente:

hautesontzietan jaso dezatela jipoia” eta guk azken honi erantzuten diogu: Baita guk ere, eta oraindik eta nahiago jipoi horren eredia Anoeta bada. Beraz, argi dago gertakari hauek denak kontutan hartuz gero, ez direla Euskal Herriarentzat Hauteskunde Demokratikoak izan. Baina, txanpon honek ere badu beste alderdia sentimendu gozoena alegia. Inoiz Anoetan inork lortu dituen emaitzik onenak lortu ditugu, emaitza historikoak, izan ere, 606 herritarren babesa jaso dugu eta hau poztekoa ezezik, eskertzekoa ere bada. Beraz, gure eskerrik beroenak Anoetako herriari gugan jarri duen konfidantza eta itxaropenagatik. Aro berri bat hasten da gaurtik aurrera eta aurten Anoetan San Juan suak ere Aro berri horren koloreak isladatuko ditu: aniztasunaren kolorea, bazterketarik ezarena, gardentasunaren, herri borondatea errespetatzearena, irekitasunarena... guk lanerako ilusioa eta gogoa agindu genituen eta lanera gatoz, gure lana irekia eta parte hartzea bultzatuko dituen izango da, jaso dugun konfidantza hori itzuli nahi diegu herritarrei. Gu ez gara bake saltzaileak edo bakearekin komertzizatzen dutenak, bake eragileak baizik eta herri honek behar eta merezi duen prozesuaren alde jardungo gara, edozein arazo konpontzeko biderik motzena eta errazena elkarrizketa dela badakigulako. Kuku herrian gaudenez, ezin amaitu gaurko ekitaldi hau kukuari aipamena egiten dion esaera bat gabe: San Juanetan kuku San Pedrotan mutu. Garaia iritsi zaiolako, gure ikur den hegaztixoa ixiltzera doa eta gu, bera imitatuz, ixilean, zaratarik gabe, umiltasunean, lanean hastera goaz. Ea datorren urtean itzultzen denean eta Anoetak beste itxura bat duela ikusita alaiago eta ozenago kantatzen duen. Besterik gabe eta osatuko diren lan taldeetan elkar ikusiko dugulakoan mila esker eta besarkada handi bat denoi”.

Bere hizketaldia bukatu ondoren bilera ordubatak eta laurdenetan bukatu da, bertan esandako guztia jasotzeko akta hau egin da eta nik, idazkaria naizenez, ziurtatu egin dut.

Finaliza su intervención y siendo las 13’15 horas levanta la sesión, de todo lo cual se extiende la presente acta, la que como Secretaria, Certifico.